

Anbulatorioa Oñaurren eraikitzeko aukera prest dago, eta orain da garaia

2023.02.16



Osasungintzaren alde, hiriko osasun zerbitzuak hobetu nahian, gaur goizean, Irungo Udalak Oñaurreko ambulatorio berria izan litekeenaren "argazki" bat ezagutarazi du. Diseinua gutxi gorabeherakoa da, baina, hiriko ambulatorio berriak izan beharko lituzkeen neurriari eta kokalekuari (erdialdean egoteari) dagokienez, bat dator Osasun Sailak jakinarazitako parametroekin.

Oñaurre (10.000 m²-ko aprobetxamendua) aukerarik onen eta azkarrena da, Udalak 2015etik prest baitu partzela eta Eusko Jaurlaritzak bihar bertan aktibatu baitezake. Irungo Udaleko talde politiko gehienek egin dute horren alde: Irungo Sozialistek, Elkarrekin Podemos – Ezker Anitzak, Irungo EH Bilduk eta Irungo Popularrek.

Eusko Jaurlaritzaren planaren zain

Diseinuaren bidez, berriro ere, jarduketaren premia eta urgentzia adierazi nahi du Udalak. Alde horretatik, gogoan izan beharra dago hilaren hasieran Erdialdeko ambulatorioa handitzeko helburuaren esparruan Irungo alkate José Antonio Santanok txosten bat helarazi ziola Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari, ambulatorio horren partzela handitzeko aukerei buruzkoa. Zehazki, Hirigintza Arloak egindako txostenaren arabera, Erdialdeko ambulatorioaren egungo azalera eraikia 2.089 m² da, baina partzela aztertu, eta ikusi da 1.560 m² inguru handitu daitekeela eta guztira 3.649 m² izan daitekeela.